

Fondoaren inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

Caja Laboral Monetario Pentsio Plana

1.> Pentsio-planaren identifikazio-datuak

>> Pentsio Planaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Monetario Pentsio Plana
b. Sistema	Sistema indibidualeko pentsio-plana
c. Identifikazio-zenbakia ¹	N4296

>> Pentsio Fondoaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Monetario, Pentsio Fondoa
b. Sistema	Pentsio-fondo pertsonala
c. Identifikazio-zenbakia ¹	F1513

>> Pentsio-fondoaren erakunde gordailuzainaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta Pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia ¹	D0194

>> Pentsio Fondoaren erakunde gestorearen eta Planaren erakunde sustatzailearen datuak

a. Izena	Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P.
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia ¹	G0217

2.> Inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

>> **Inbertsio-irizpidea** Fondoaren aktiboa partaideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, batez ere araututako merkatuetan, betiere segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispersioa, moneta-kongruentzia eta helburuetara moldatutako epeak aintzat hartuta.

>> **Balorazio-irizpidea** Fondoko aktiboak merkatuko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, indarreko legediak finkatzen dituen gidalerroei jarraiki.

>> **Banaketa estrategikoa** Ondarearen % 100 epe laburreko Errenta Finkoan inbertitzen du. Zorroa errenta finkoan eta/edo pribatuan inbertituko du, betiere inbertsio-mailako kreditu-kalitatea badu edo, txikiagoa bada, Espainiako Erresumaren unean uneko ratinga. Esposizio osoaren % 20k gehienez kalitate txikia izan ahalko du (BBB- baino txikiagoa). Inbertsio-ehunekoa aldatzeko, aktibo deribatuak erabili ahal izango ditu merkatu antolatuetan. Finantza-tresna deribatuen bidezko merkatu-arriskurako esposizioa ondare garbiaren zenbatekokoa izango da, asko jota.

>> **Arrisku-profila** Pentsio-plan hau inbertsio-profil kontserbadoreetarako eta/edo estalitako kontingentziaren bat gertatzeko aurreikusitako epea 5 urtetik beherakoa dutenentzat da gomendagarria.

>> **Arriskuak neurtzea** Azaldutako inbertsioek arrisku hauek izan ditzakete, besteak beste: interes-tasaren arriskua, kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta finantza-tresna deribatuak erabiltzearen arriskua. Arriskuok neurtzeko parametro hauek erabiliko dira: Kreditu-arriskua: zorroko tituluen ratinga. Likidezia-arriskua: zorroan dagoen likideziaren ehunekoa. Interes-tasaren arriskua: planaren gehieneko eta gutxieneko iraupen-tartea. 0 eta 5 urte bitartekoa izango da. Deribatuekiko esposizioa: ondare garbiaren gaineko esposizioa.

>> **Etekin-helburua** Altxorak jaulkitako diru-merkatuko aktiboek eskainitako errentagarritasuna gainditzea da helburua.

>> **Likidezia-koefizientea** Fondoak prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta gehienez hiru hileko mugaeguna duten diru-merkatuko aktiboetan egongo da.

>> **Gainbegiratzea eta jarraipena egitea** Erakunde gestorearen middle office areak harturiko arrisku-maila kalkulatzeko eta inbertsio-politikan finkaturikoarekin bat datorren egiaztatzeko prozedurak ditu.

>> **Indarraldia** Nahi adina